

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko urriaren 8a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Bera. Ehun lagun inguru ariko dira bihartik aitzinera larunbatero eginen diren Gazte Jokoetan
Petti. «Momentu txarrak dira abesti onak ateratzeko unerik aproposenak»



• JOSU SANTESTEBAN

Kofradiak, bertako produktuen goraipamena

Nafarroako nekazaritza produktuen defendatzeko eta goraipatzeko kofradia gastronomikoak ugaritzen ari dira azken urteotan zizen antzera. Kofradia hauetako batzuk aintasunez sortu dituztela dio batek baino gehiagok. Bertakoa bertakoa delako goraipatzen dute. Besteak zurea mirestera etortzea nahi izanez gero, zuk ere besteengana joan beharko duzu haiena mirestera. Horrek igandero alde batetik bestera ibiltzera behartzen ditu kofradiakideak, eta nekatzen hasiak dira.



Bera •

Gazte Jokoak larunbatero, bihar hasita

Ehun lagun inguru ariko dira bortz asteburutan, Gure Txokoa elkarteak antolatuta

Laugarren urtez segidan, Gure Txokoa elkarteak antolatuta, eta gazteen laguntzaz, Gazte Jokoak 99 hasiko dira bihar. Azaroaren 6a bitarte, larunbatero ehun gaztek baino gehiagok bortz ekitaldi izanen dituzte.

HASIERAKO BI URTEETAKO filosofiari eutsiz bortz asteburutan egingen dira aurtengo Gazte Jokoak. Lehendabiziko proba, ohi bezala, karrikan egingen da. Proba hori bihar jokatu da Altzateko karrikan, Insumisoak soldaduskan izenburupean. Partehartzaileek makina bat oztopo gainditu beharko dute, trebetasuna, umorea eta kirola uztartuz.

Bigarren proba bihar zortzi jokatu da. Kiroldegi aitzinean, kultura galdetegi zabal bati eta zenbait probari erantzun beharko diete gaz-



Gure Txokoa eta hainbat gazte antolatutako gazte jokoaren barne lasto altxatze proba egingo da, urriaren 30ean.

• ARTXIBOKOA

teek Piruaren Jokoa-ren bidez.

Hirugarren proba urriaren 23an egingen da. Arratsaldeko 16:00etan elkartuko dira talde guztiak euren eskultura

eraikitze. Talde guztiek nahi duten moduko eskultura egingen dute; betiere berziklatutako gaiekin egin beharko dute, eta bi orduko denbora tartearen barrinean.

Bidenabar, eta eremu berean, patata-tortila txapelketa egingen dute gazteek.

Astebete geroago, hilaren 30ean, aitzinako jokoak eta herri kirolak izanen dituzte. Arratsalde osoan zehar lasto altxatzea, laien lasterketa, esneontziak... eta bertzelako kirolak gainditu beharko dituzte.

Azkeneko proba da lau urteetan zehar errepikatuko den bakarra. Talde bakoitzak bere antzezlan edo parodia atondu beharko du, kultur etxeko taula gainean jendeari erakusteko. Ondotik, eta bestari akabera emateko afaltzera bilduko dira partehartzaile guztiak.

Partehartzaileak taldeka aritzen dira, eta gutienez 8 lagunekoak dira. Talde bakoitzak proba guztiak gainditu behar izaten ditu. Hala ere, eta antolakuntzaren helburuei so, ez dago inolako sariarik partehartzaileentzat. Bertze urteetan aurtengo baino jende gehiagok parte hartu izan du. Lehen bi urteetan udaberrian egin ziren Gazte Jokoak, joan den urtean uztailan egin ziren, baina, data hobeen bila, aurtengo udazkenean iragan dira. Orotara 15 bat laguneko sei taldek parte hartuko dute aurtengo aldian.

→ Jon Abril

Arbizu

•
Nafarroako II.
Trikitilari
Eguna egingen
dute igandean

NAFARROAKO trikitilarien eskolek, iaz Barañainen egin zuten gisara, trikitilarien eguna ospatuko dute igandean Arbizun. Eguneko ekitaldiak goizeko hamarretan hasiko dira eskola guztiei Arbizuko plazan egingen zaien harrerarekin. Hamaiketan karrika dantzak egingen dituzte taldeka Arbizun, Altsasun, Olaztin, Etxarrin eta Lakuntzan. 14:00etan berriz ere denak Arbizun elkartuko dira eta ordu erdi geroago pilotalekuan bazkalduko dute. Arratsaldeko bortzetan bertso saioa izanen da, eta eskola bakoitzaren saioa (bina kanta), ikasleek urtearen buruan ikasirikoa erakuts dezaten. Trikitilarien egunari Gozategi taldearen kontzertuak emanen dio akabera. Arratsaldeko zortzietan izanen da.

Trikitilari Eguna Sakanan antolatzeko arrazoiak ez da kasualitate hutsa. Izan ere, Sakanan anitz dira trikitixa eta panderoa jotzen eta ikasten ari direnak. Hortxe dira, erranikoaren adibide, Arbizuko, Altsasuko eta Olaztik trikitixa eskolak, ehun ikasle biltzen dituztenak, eta Sakanako herrietako bestetan trikitixari egiten dioten leku handia.

→ Daniel Urrutia

muga enea

MIKEL REPARAZ



Inkomunikatzen

Telefonoaren seinale intermitentea entzun eta «komunikatzen du» esaten genuen garai batean. Honezkero iragana den esamoldea. Airtel, Euskaltel, Jazztel eta Ostitel horiek guztiak mundura etorri zirenetik, iragan. Neskaren etxera behin eta berriz hots egin eta hamairugarrenean kezkatzen hasteko arrazoiak zirela pentsatzen hasten ginen; gero geure burua lasaitzen genuen. Betiko lagun berritsu horrekin ariko zela solasean, segur. Horixe esan ohi zuen hamalagarrenez telefono-doinu luzexka atseginek «baai» goxo bati

lekua utzi ondoren. Garai batean lagun guztiak asmatzen zuten: «Aldi pare batez deitu nian, eta ez zegoan inor hire etxean, ez zian nehorik hartzen». Nahikoa baitzen «komunikatzen du» haren pi-pi-pi intermitenteen bidea jarraitzea edonor, edozein etxean kontrolpean izateko.

Egun, ordea, kaos tenorean bizi gara. Inkomunikazio garaietan. Telefonía digitalak eta multifuntzio superfuntzionalaren funtzio anitzek etxe eta bulegoak inbaditu dizkigute. Komunikazioaren zerbitzura, diote. Eta gauza da neskari behin eta berriz deika

ibili arren, inoiz ez dugula etxean harrapatzen, eta kasurik onenean bere izebaren etxera desbideratu duela deia, eta bere amona bizkaitarra jartzen zaigula aurikularrean, sorra dagoela eta faborez berba ozenago egiteko oihukatuz. Zinez, nahiago nuen garai hura, telefono harietan zirikatze pibilejioa CESIDeko espiek eta Mortadelok zutenekoa.

Behinola «komunikatzen du» esamoldea baztertu genuen bezala, erraizun berriak bahu beharko dizkiogu orain hizkuntzari. Inkomunikatzen, betiere.

Lizarra •

Zubi berria Ega ibaian

Fray Diego eta Antso Jakituna kaleak elkartuko ditu datorren urtean eraikiko den zubiak

Ega ibaiak zeharkatzen duen hiriak aldaketa nabarmenak izan ditu azkeneko hilabeteetan. Irailetik aitzina aparkaleku gehiago daude hirian —lurpekoa barne—, eta datozen egunotan bi biribilgune egingen dituzte. Halaber, zubi berria eraikiko da Ega ibaiaren gainean.



Lizarrako Los Llanos-eko pasarela. Horren ondoan, 15 bat metrotara, beste zubi bat eraiki nahi dute.

KRISTINA BERASAIN

Los Llanos pasealekuaren sarreran eraikiko da zubi berria, Antso Jakituna kalearen bukaeran, eta kale hori eta Fray Diego kalea elkartuko ditu hain zuzen ere. Nafarroako Gobernuak Pavimientos de Navarra (Pdenasa) enpresari eman dio lanak burutzeko aukera —176.435.468 pezeta kostako da—. Zubia eraikitzeke lanak urte honen bukaeran hasiko dira, eta lanak amaitzeko epea hamabi hilabetekoa izanik, 2000 urterako izanen da

prest. Projektuan aurreikusia dagoenez, zubiak ingurumenarekin bat egingen du. Izan ere, zonalde hori hainbat zuhaitz motak inguratzen dute, eta horiek errespetatzeko asmoa erakusten du projektuak. Zubiaren egitura sinplea izanen da, eta itxura modernoa izanen du. Gauzak horrela, zubiaren goikaldea laua izanen da, hormigoizkoa eta arkurik gabekoa. Zubiaren behealdean, berriz, oinezkoentzako pasealekua

egonen da, 112 metrokoa, Ega ibaiaren ertzetik.

Datorren urterako prest egonen den zubi honek Lizarrako hiri barnean dagoen zirkulazioa hobetuko du. Horrela, zirkulazioaren antolamendua aldatu egingen da, eta, Azucarero zubia, orain arte trafiko osoa jasaten baitzuen, norabide bakarrekoa izanen da. Zubi berriak, berriz, bi karril izanen ditu, eta oraindik zehaztu gabe baldin badago ere, ziurrenik

Lizarratik Iruñea aldera eta Logroño aldera joanen den trafikoa bideratuko du. Zubiak, halaber, oinezkoentzako bi espalo izanen ditu alboetan.

Proiektu hau Lizarrako trafikoa hobetzea helburu duen plangintza nagusiaren baitan kokatu behar da. Iragan irailetik aurrera kotxeak aparkatzeko hiru leku daude. Aurrenekoa, Lizarra ikastolaren ondoan; bigarrena, autobus geltokiaren atzealdean; eta azkenekoa, Los Llanos pasealekutik hurbil. Halaber, hiru zonalde horietan lurpeko aparkalekuak egin dituzte. Bertzetik, aipatu beharra dago datozen egunotan El Volante eta Capuchinosko bidegurutzeetan bi biribilgune egingen dituztela eta hauek ere trafikoa bideratzeko erraztasunak emanen dituztela. Proiektu horiei guztiei Lizarrako saihesbidea —asteartean ireki zen— gehitu behar zaie. Izan ere, lehen 11.437 auto inguru pasatzen ziren egunero Lizarra erdigunetik, eta orain, bertara datozenak baino ez dira pasatzen. Beraz, aldaketak nabarmenak dira dagoeneko, eta etorkizunak ere aldaketa gehiago ekarriko ditu.

→ Kristina Berasain



herri aldizkariak
Edurne Elizondo

Afrikatik Irurtzunera

Irurtzunen bizi diren etorkinei buruz idatzi du Nerea Baldak **Guaixe**-ko azken zenbakian. Haien kezak eta helburuak jasotzeko asmoz, elkarrizketa egin dio Irurtzunera heldu berria den RokHayaton Diague senegaldarrari. Nafarroara zergatik etorri den azaldu du afrikarrak **Guaixe**-n: «Bi hilabete besterik ez daramat Irurtzunen, baina zazpi urte eman ditut Madrilen. Iruñean lana aurkitzea errezagoa zela esan zidaten; Madrilen oso zaila da, etorkin asko dago eta lan gutxi. Gainera, han ezin nituen gastuak ordaindu. Agiriak behar bezala izateko ordaindu behar

da, pisuak ere, nahiz eta Madriletik kanpo egon, oso garestiak dira; hemen, ordea, 30.000 pezetatan aloka dezakezu pisu bat».

«Hemen ez dut familiarik, baina beste etorkinekin elkarrekin bizi garenez, guztiak bat eginda gaude. Jendea herrialdetik ateratzen denean bere lurraldeko jendearekin bat egiten du. Nik nahiago dut beste senegaldarrekin bizi-tzea; Madrilen Nigeriako neska batekin bizi nintzen, baina nere herrikide gehienek nahiago izaten dute beren lurraldeko jendearekin elkartu. Gure artean ez dugu arazorik izaten. Musul-

manak gara. Iruñean mezkita bat dago; ostiraletan, egun sakratuetan, hemen goak hara doaz. Gertu bizi direnak egunean bost aldiz joaten dira, besteak ostiraletan».

Irurtzunen ongi dagoela erran du RokHayaton Diague: «Ni etorri berria naiz, baina beste batzuk hamar urte daramatzate hemen, gaizki egon izan balira ez ziren hemen egongo. Herriko jendearekin ez dute arazorik izan. Haiek ere ez dute inolako arazorik sortu. Lan egin ondoren elkartzen gara, tea hartzeko, pelikula bat ikusteko... ez dugu herrian arazorik sortzen».




urdairen mintzoa

Xabier Larraburu

Nire Nagusiari

Nafarkaria-ko Jefe, agur eta ohore. Xabier naiz, Xabier Larraburu. Urdaiaren mintzoaren egilea. Lehengoan ikusi nuen Maixux Rekaldek, bi urte luzez Egunkariako artikulugintzan aritu eta gero, agur esaten zigula bere asteoroko zutabetik eta zera pentsatu nuen: gauzek hasiera bat eta bukaera bat behar dutela, baietz! Gero kontuak atera nituen eta ohartu nintzen neuk ere bi urte eman ditudala jada zutabegintzan, eta akaso alde egiteko garaia heldu dela. Eeeel! Jefe!, ez negarrik egin Jefe! Zer? zigarroaren kea dela? Bale sinetsi egin dizunaren itxurak egingo ditut. Baina segi dezagun aurrera... Zuk eta biok ongi dakigu inertzia mada-rikatuaz zenbat eta zenbat bete-behar luzatzen ditugun eta zein errendimendu eskasarekin gainera. Zuk eta biok ongi dakigu inertziaz aurrera eramandako edozein lanetara nagitasuna eta gogogabezia atxikitzen zaiela. Begiratu besterik ez dago funtzionarioen karikaturak, horiek baitira beraiek deskribatzeko erabiltzen diren kolore nabarrak, kolore ilun eta aspergarriak. Horrexegatik inportantea deritzot gauzak hasiera eta bukaera bat izan behar dutela esakerari. «Bainan jan, jan egin behar dugu!», esango didazu. Baietz! Hortan arrazoiak duzu Jefe. Hor dago oztopo nagusia: gauzei modu duin eta jator batean amaiera ematen diegu, oso fin, oso dotore, erabat modu eskuzabalean... eta gero... ai dios!... hilabete hontan ez didate sosik batere sartu! Horrexegatik inertzia indarra, hain juxtu. Bestela ez legoke ez inertzia ez ostik ere! Denak bilduko ginatke tabernan, kontu kontari, kanta kantari... eta beste. «Orduan hasiko ginen Tabernaren Inertzia sofritzen», esango didazu, bainan, al loro, Jefe, gogoeta egin Tabernaren Inertzia kolore biziak dituela, laranja, gorria, aupa aupa!, horia, eta ez dagoela konparatzerik! Zertaz ari nintzen?, a bail, jan egin behar dugula. Horixe, jan egin behar dugula!, eta Eroskiko kutxazainari ezin diogu «zutabea utzi dut» esan eta kitto, zeren berak «oso ongi iruditzen zait, usteldu aurretik hobe uztea» esan eta segituan «guztira 2.745 pezeta dira» gehituko du, eta orduan zer? Zer esango diot kutxazain ditzosozkoari?, euskal kulturaren (ejem!) kontra ari dela?, inertzia eta funtzionarioen kolore zikinen alde? Ez bai! Berak ere jan jan egin behar du! Horrexegatik, Jefe, zure aurrean belaunikaturik eta ez niregatik, ez!, baizik eta munduko kutxazain guztiengatik, eta beraien umeengatik, Maixuxen eredu ongi dagoela, bainan... nirekin kontaktzen segitzeko eskatzen dizut. Ai, eta hau ez argitaratu e?, gero bidaliko dizut zutabea. ●

Bertako produktuak goraipatzeko kofradiak



Kofradia gastronomikoa bertako produktu bikoitza goraipatzeko defentsan. SANTBAN

Nekazaritza produktuak goraipatzen dituzten kofradiak ugaltu egin dira Nafarroan, kofradiakideak gogaitzeraino

Kofradiak jatorriz elkarte erlijiosoak baldin baziren ere, geroago herri eta lurraldeen defentsarako antolaturiko zaldunen elkarteak bilakatu ziren. Euskal Herrian hiru kofradia mota izan dira historikoki: nekazarien kofradiak, arrantzeale kofradiak eta kofradia politikoak. Historia alde batera utzita, orain, zizen antzera, kofradia gastronomikoak ugaltu dira Nafarroan. Batzuk arintasunez sortu egin direla diote.

KOFRADIA HAUEK ERDI AROAREN USAINA dute. Txerriaren inguruan 1992an eraturiko Tafallako Jainkoak Kutoaren ordenaren kide Julian Sixto Condok kofradien jerarkia azaldu du: «Lehendakaria maisua handia da; lehendakariordea, lehen maisua; idazkaria; eskribanoa; eta diruzaina, ekonomoa». Kapa luzeak, txapela handiak eta dominak osatzen dute kofradiakidearen uniformeak. Kofradia gehienetan emakumeek sartzerik dute baina gizonezkoak dira kofradiakide gehientsuenak. Kofradia guzietan egoitza duten lekua produktuaren bat «defenditzen eta goraipatzen» dute. Tuterako alkatzofaren eszelentziak goraipatzeko

urte honetako martxoan sortu zen kofradia da berriena, nahiz eta dagoeneko Erriberako barazkiak goraipatzen zuen Itzulipurdien Ordena esistitzen zen. Horrelako beste zazpi bat daude Nafarroan.

Joxe Migel Galarregi Elgorriagako Onddo eta Zizen Kofradiako lehendakaria da. Kofradian hamasei kide daude eta duela bost bat urte jaio zen «onddoak eta zizak defenditzeko». Galarregi erran duenez, ez da «bazkaltzeko kofradia bat soilik» eta «onddoak defenditzeko lehenbizi onddoak atera behar direnez», ingurumenaren defentsa ere kofradiaren zioa da. azken hilabeteen makina bat ekitaldi egin dituzten zizen inguruan: argazki rallya, onddo eta zizen bidea, enkante bat, txapelketa bat, haur marrazki lehiaketa, margolanen erakusketa. Zuhaitz mikorritza-tuen proiektua dute bestetik. Onddo eta zizen esporak hartu eta ezkurretan sartu dituzte arbola tikiak sortzeko. Gero mendian paratu dituzte. «Erraten dute sainetan gelditzenmdirela esporak eta gero ateratzen direla onddoak», dio galarregik. «Ikusiko dugu». Gainera, museo mikologikoa paratu nahi dute Elgorriagan.

Kofradiakide izateko merituen bila

Nafarroako Arnoaren Kofradia Erriberri sortu zen 1990eko urrian «Nafarroako ardo-

en bertute eta ezaugarriak zabaltzeko eta goraipatzeko». Luis Fernandez da bere lehendakaria. Euren ekitaldirik garrantzitsuena kofradiakide berrien inbestidura da eta urtean behin egiten dute. Aurtun Elizondon egiten dute. Arnoen lehiaketa egiten dute, mahats biltzearen besta, nobedadeen erakustaldia, dastatze ikastaroak, bisitaldiak, hitzaldiak eta argazki lehiaketa.

Fernandezek azaldu duenez, kofradiakide izateko idatzi behar zaio eskutitza bat kofradiaren lehendakariari erranez zeintzuk diren kofradiakidegalearen meritoak. «Batzordean bi herenek baietza eman behar dute eta ezetz erratekotan zazpi urtez itxoin beharko du berriz ere eskutitza bidaltzeko. Hortaz, zazpi urte izanen ditu meritoak egiteko. Arnoaren munduaren inguruko meritoak hartzen dira kontuan. Mahastizainak, enologoak, arnotegizainak eta arnozaleak dira gure kofradiaren kideak».

Juan Jesus Corcin fundatzaileetako batek esplikatu du nola otu zitzaizen kofradia sortzea: «Orduan Erriberriko udaleko zinegotzia nintzen. Bordele ondoko herri batekin geunden anaituak eta egin genien bisitaldi batean bertako ohorezko kofradiakide izendatu gintuzten. Hortik atera genuen ideia Nafarroako arnoaren kofradia egiteko. Lurralde arnoegile indartsu baten bizi gara eta anitz interesatzen zitzaigun arnoaren inguruko guzia. Nafarroako arnoaren defentsarako, arnoaren ohitura onak erakusteko, eta arnoaren mundua gehiago ezagutzeko sortu genuen kofradia».

Baztan Balleko Gaztanbera Kofradia 1993ko abenduaren 31an sortu zen. Lander Santamaria kofradietako bat da. «Bilatu

genuen gurea zen produktu bat», komentatu du Santamariak. «Baztaneko txekorraren txuleta hartu behar genuen. Baina azkenean gaztanbera aukeratu genuen bertako produktu tipikoagoa zelako». Santamariaren aburuz, mamiaren promozioa egitea zaila da baserrietan artzainek egiten dutena leku batetik bestera ezin delako eraman. «Dano-nek saltzen duena ez da benetazko gaztanbera. Guk antzinako produktua goraipatzen dugu». Baina helburua ez da bakarrik gaztanbera promozionatzea, baita kaikua eta gaztanberaren inguruko lanabes guztiak ere.

Igande librerik gabe

Kofradia bakoitzaren ekitaldirik garrantzitsuena urteko kapitulu da, non kofradiakideak izendatzen baitituzten. Beste kofradiak haraino joaten dira. Lehen, Santamariak azaldu duenez, Gastronomía Kofradien Federazioaren barnean doze bat kofradia zeuden. Orain, hogeita hamazortzi. «Orain kasik ez dago igande librerik», dio Santamariak. «Kofradia bakoitzetik bizpahiru kide joatea nahikoa da eta horretarako kapitulu ezberdinen artean aukeratu behar da».

Santamariaren iritziz Nafarroan kofradiak arintasun handiz sortu dira. «Kofradia batean izateagatik obligazio batzuk daude. Eta zure kapitulu beste kofradiak etortzea nahi baduzu besteen kapituluetara joan beharko duzu ere. Gu berrogei bat kide gara eta lehen bi urteetan ia kapitulu guzietara joaten ginen. Baina orain ez. Arazo handiak ditugu kapituluetara kofradiakideak bidaltzeko».

Iragan igandean Elgorriagako kofradia guzietan anaitze eguna egin nahi zuten. «Esparragokoak eta gu bakarrik geunden», dio Santamariak. «Gipuzkoan ez bezala, hemen fundamenturik gabe sortu dira kofradiak. Gure ustez, behintzat Nafarroako kapituluetara joan behar da».

Sakanako Txistorraren Kofradia duela bost bat urte sortu zen, Patxi Galarza kofradiakideak dioenez, «bertan oso txistorra

Ohorezko kofradiakideak

Iragan igandean Elgorriagako Honddo eta Zizen Kofradiak bere kapituluak egin zuen. Kapituluak kofradiakide berriak izendatzen diren ekitaldiak dira. Bi kofradiakide mota daude: kofradiakide osoak eta ohorezkoak. Elgorriagan Pedro Carrasco boxealaria, Raquel Mosquera bere emaztea, Nafarroako Unibertsitateko errektore Jose Maria Bas-tero eta Espainiako Telebistako gidoigile Jose Maria de Juana izendatu zituzten. Pertsona entzutetsu hauen izendapenek nolabaiteko haserrea sortzen dute beste kofradiako kideen artean kofradien munduari seriotasuna kentzen omen diotelako. Horixe uste du Gaztanberaren Kofradiako kide Lander Santamariak. «Guk ez genuke Pedro Carrasco eta Raquel Mosquera izendatuko ohorezko kofradiakidegaien alderdi humanista kontuan hartzen saiatzen baikara». Gaztanberakoek Miguel Delibes, Mariano Izeta, Pello Salaburu, Ramon Arozarena, Pedro Migel Etxe-nike, Jorge Oteiza izendatu dituzte ohorezko kofradiakide, baita Hegoaldeko lau futbol talde nagusiak ere.

Elgorriagako kofradiaren lehendakari Joxe Migel Galarregik dio ohorezko kofradiakideak «kofradiari izena emateko» izendatzen dituztela eta egin kritikaren aitzinean galdetzen du ea Osasunaren lehendakaria izendatzea serioa ote den.

Lodosako Pikillo Piperraren Kofradiako Angel Esparza lehendakariak erran du piperrarekin zerikusia duen norbait bilatzen dutela beti, «piperraren defentsan aterako dena, piperrari maila handiagoa emateko». Piperraren ohorezko kofradiakidean artean dira Juan Mari Arzak, Pedro Subijana, Beloki, Retegi, Miguel Indurain eta Odon Elorza.

Esparragoaren kofradiaren lehendakari Jesus Maria Astrainek onartu du orain arte aukeratu dituztela ohorezko kofradiakide bezala euren izenarekin esparragoaren goraipatzean lagun zezaketenak. «Baina farandula ez dago boladan eta bestelako jendea bilatzen dugu orain», gaineratu du.

onak egiten diirelako». Txistorra altxatzeko eta ezagutarazteko aitzakiarekin ezagutzen dira beste kofradiak, herriak eta giroak. Ia astebururo egiten dituzte ateraldiak. Irailaren 12an, erraterako, Bidasoako Izokinaren kapituluak izan zen. 19an Donibane Lohitzu-neko Euskal Korsarioena, 26an Pikillo Piperrarena, eta urriaren 3an Valladolideko Arnoarena eta Arabako Patatarena. Denbora behar da guzietara joateko. Galarzari kofradien kapituluetara joatea gustatzen zaio baina bi haurtxo gazte ditu eta ezin du nahi bezainbat kofradian ibili haurrek asteburuetan aitarekin egon nahi dutelako.

«Lehen txistorra txapelketa bat egiten genuen», dio Galarzak. «Baina nik irabazi nuen urtean beste haragitegiko bat haserretu egin zen eta izugarriko iskanbila sortu zen. Hori dela-eta utzi genion txapelketa egiteari. Orain kofradia eguna egiten dugu».


Galarzari pena ematen dio bere kofradiak izan duen beheraldi tiki honek. «Antolatuta egon behar zuen hobekixeago, seriedade pixka bat behar da. Borondatea badago, baina ez da kobratzen eta egiten da ahal dena. Eta bat edo beste serio samar sartzen badira tartean hasten dira bata besteari enbidoak botatzen eta. Oso ongi egondu da eta nik uste horrelako gauzak egiten jarraitu behar dela txistorra naturala, eta ez industrial, goraipatzeko». Galarzaren beste pena bat da kofradiak guti erabiltzen duela euskara eta horretan ari da lanean bere kofradiakideen artean.

Kofradien federazioak

Gastronomia Kofradien Federazioak (Fecoga) EAE, Nafarroa, Iparralde, Kantabria, Asturias, Galizia eta beste hainbat lekutako kofradiak biltzen ditu. Nafarroako zenbait kofradiak Fecogan daude eta beste batzuk ez. Erriberriko arnoiaren kofradia ez dago Fecogan, Corcinek dioenez, «ez dugulako zerikusirik Tolosako babarrunarekin, Bellozako txahalarekin eta gaztanberarekin ere. Guk harremanak ditugu arnoaren inguruko kofradiekin, besterik ez».

Bestetik badago Nafarroan kofradien federazio bat sortzeko mugimendua. Batzuk ikusten dute Fecogaz aparte beste kofradia bat sortzeko nahi hori Fecoga eta Euskadi identifikatzearekin bat datorrela. Jesus Maria Astrain Nafarroako Esparragoaren Kofradiaren lehendakariak duela urte batzuk Nafarroako Gastronomía Ordena sortu nuen Obanosen. «Ideia zen Nafarroako kofradia gastronomiko guztiak eta kontseilu erregulatzaileak federazio berdinean biltzea bertako produktuak goraipatzeko», adierazi du Astrainek. «Baina horrek ez du erran nahi Fecogan jarraituko ez gurenik», gaineratu du. Astrainen aburuz, Nafarroako kofradien mundua berrantolatuta beharko litzateke. «Gero eta kofradia gehiago dago eta igande guzietan baditugu ekitaldiak han eta hemen. Jende guzia karrikadantzan gabiltza alde batetik bestera. Jendea nekatu egiten da eta obligazio bilakatu da kofradia ezberdinen kapituluetara joatea. Nire ustez Nafarroako Kofradien Eguna egin beharko genuke. Eta horretan gaude».

→ Asier Azpilikueta



Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Alberto Pelairea poeta eta antzerkigilea

Bilbon jaioa baina Tuteran hazia eta Fiteron bizi izandakoa eta zendua, Alberto Pelairea Garbayo mende honetako olerkaririk haundienetakoa dugu Nafarroan zalantzarik gabe, eta hala aitortu izan ohi zaio, alabaina...



EKOIZPEN ZABALEKO EGILEA izanagatik ere, gutxi izan dira Pelaireaz arduratu direnak, eta huraxe gutxi bailitzan, aspaldikoxe eta laburzki: Luis Gil Gómez tuterarrak *Tudela nos notables contemporáneos* (NTCP, 181 zbk., 25-28 or.) eta *Estampas ribereñas* (NTCP, 267 zbk., 7-12 or.) antigualeko kalerretan, Angel García Sesma Mexikotik ekarri *Poemario Fiterano* kausigaitzan (Iruñea, 1969, 225-233 or.), eta Fernando Pérez Ollok aguro zaharkitzen ari den *Gran Enciclopedia Navarra*-n (IX. alea, 67-68 or.). Are tamalgarriago, ordea, Pelairearen idazgintza ezagutzeko ditugun lagin eskasak, bada, dagoen gauza bakarra, eta egun arras eskurazail diren garaien garai agerturiko testuez lekot, Jose Javier Urangak zuzentzen zuen egunkariaren liburu bildumarako eskaturik, 1973.ean Gil Gómezek bildu *Antología poética* baita, bere hitzetan, orduan jada gutxi xko gertatzen zena, orain eskasago oraino. Hirukoitza da Pelairearen ekarpena ongi ezagutzeko egiteke dirauen lana, hots, bere lan guztien ikerketa serioa eta sakona, eta olerki-lan zein antzerki-lan guztien edizio osatu eta iruzkindua. Esanikoak etörtzen diren bitartean, eta biziki kostako da, bihoaz hutsunea hala edo nola zarratzeko honako berri eli mentsa.

Alberto Pelairea Garbayo Bilbon jaio zen 1878 maiatzaren 16an, Erronkarikoa zen bere aita Kalixto bertako bigarren hezkuntzako ikastetxe batean marrazki irakasle zegoelako. Albertok bi urte baizik zituela, familia Tuterara aldatu zen, bere ama Rita hangoa zen eta. Hemeretzi urterekin aita zendu zitzaion -ordurako hilik ere bazuen Luisa arreba-, eta ama lagun, hainbat ikastaldiri ekin zion Zaragozan, Madrilen zein Bartzelonan, bakar bat ere osoro

amaitu gabe: militarra, filosofia eta zuzenbidea. Etxeko ekonomia eskolario urteek arras makaldurik, Tuterara itzuli ziren, azukre lantegiko bulegoetan langile hasteko; geroago, Sitgesera joan zitzaigun lau urtez, oinetako lantegi batean ber lana burutzeraz; azkenik, berebiziko lana zukeen Fiteroko Mainuetako administrari sartu zen 1908.ean. Ordurako, Tuterako Zezilia Albarekin ezkondua zegoen, eta seme-alabarik ez bazuten ere, Zeziliaren iloba zen Maria Alava Albak arraheinki bete zuen bere abizenak adierazten zuten papera -hau izan zen, bestalde, Pelairearen paper gehienak gorde zituen pertsona-. Ama 1925.ean eta emaztea 1931.ean hil ostean, Albertoren osasuna zeharo kaxkartu zen, eta eztarriko minbiziak jota, 1939.eko apirilaren 17an zendu zen, amarekin eta emaztearekin batera hilobi berean, Fiteron bertan ehortzirik dagoela. Egun liburuetan horren naroki jaso ez den esker ona eta mira, aisa erakutsi zuten Fiteroko eta Tuterako bizilagunek bi hirietan karrika bana olerkariari eskeini ziotenean.

Esan bezala, bi izan ziren Pelaireak landu zituen literatur arloak, olerkia eta antzerkia hain zuzen. Bertsoegile joria, metrika eta eredu estrofikoak maisuki menperatzeaz gain, hari oparoko erdal bertsolaria genuen, inprobisatzaile fin eta ugaria; bere poetika orduko istmoetatik at eduki zuten


gutxiz gehien, nahiz Rubén Daríen eragina nabaria datekeen zenbaitetan, bere egile gogozkoenak aipatu modernista, Amado Nervo eta Jacinto Verdaguer zirelarik; Pelaireak lurrari atxikimendu itsua zion, bertako txikikerietan jartzen zuen garrantzirik gehien, eta aukeratu idazgintzan murgiltzeagatik ordaindu beharreko bidesaria garestixegia atera zitzaion, ikusi lez. Bere olerki gehienak, laupabost salbu, orduko hainbat aldizkako argitalpenetan azaldu ziren -Iruñeko *Diario de Navarra*-n eta *La Voz de Navarra*-n; Zaragozako *Heraldo de Aragón*-en; Tuterako *El Anunciador Ibérico*-n, *La Ribera de Navarra*-n, *El Porvenir Agrícola*-n, *El Ribereño Navarro*-n, *El Eco del Distrito*-n eta *La Voz de la Ribera*-n; eta, finean, Fiteroko *La Voz de Fitero*-n zein *Fitero Mercantil*-en, argitaragabe geratu ez zitzaizkionean bederik ere, eta aunitzetan ere, Acotolo, Lodares eta El gallo de la Malena ezizenen pean.

la gehienetan taularatu ziren hogeita koska antzerkilar borobildu zituen Pelaireak bere bizitza osoan zehar; guztiak zartzuela edo sainete laburrak, gehienetan Fiteron edo Tuteran kokaturik, eta askotan musikak lagundurik. Pelaireak musikaz ere zertxobait bazekien; García Sesmak eskeini olerkian honela irakur daiteke: "Aficionado a la música, tocaba con maestría, el acordeón y el piano, la guitarra y la ocarina, y ejecutaba a menudo fragmentos de la Bohème, por afinidad de espíritu con Marcel y con Mussette". Sitgesen zegoela, Cuscó maisua izan zen bere antzezpenen musika egilea, eta behin Fiteron egoenez gero, berriz, Toms Jiménez, Luis Gil Lasheras, Antoni Catal, Felipe Bernad, baina bereziki José María Viscasillas Fiteroko organojole korellarra.



etorri ahalean

Patziku Perurena



Lizarra

MUNDUKO HERRI askotan bezalaxe, gurean ere, arbola mitikoa eta sakratua izandu da lizarra, eta nik dakidanez, behinik behin, hagitz bakan aztertu eta aipatu da. Hala dio Lakoizketako eroak: «Fraxinus excelsior (erne izenaren bigarren parteari), L.: cast. FRESNO: FRESNO COMUN: fran. FRENE: Vas. LIZARRA, de LITSA hilacha ó pedazo de hilo y ARRA gusano y cuyo conjunto equivale á hilacha que dejan los gusanos, aludiendo al fenómeno que se nota en sus hojas, cuyo limbo queda convertido en una especie de red, constituida por sus costillas cuando las orugas de las cantáridas que se crían en este árbol comen su parénquima. De aquí LITSAKIA cuya etimología equivale á cosa que proviene del fresno, y quiere decir ó significa cola, licor pegajoso y pasta fuerte, transparente, aludiendo al maná que desprende la especie siguiente (Fraxinus ornus). Los labortanos le llaman LEIZARRA, y de aquí LEIZA pueblo ó villa de Navarra. Card. le llama LEJARRA».

«Lizarra» eta «Leizea» ezin bereiztu horretan, Mitxelenak ere erakutsi zituen bere zalantzak. Patxi Altunari, berriz, hala aditu nion behin: «nik amari entzun nion aspaldi: «erlekutza zer den ez al dakik? Batzuk lizarra esaten ziotek. Azpeitin erlekutza, horra». Baina, Altuna jaunak jakin behar luke lizarra zahartzera bihotzetik hasten dela usteltzen eta barrenustutzen, eta hain zuzen ere, lizar zahar barrenustu horiekin egiten zirela maiz eultzak edo erlauntzak edo-Azpeitiarren esanera erlekutzak». Nahaste filologiko honek, hagitz zentzagarri behar luke politikan ere.

Atzera Lakoizketagana bihurtuz, liburu ondarreko eraskinean haxe erasten du: «Se recogen y se secan las hojas de este árbol en el mes de Septiembre para que sirvan de pas-

to al ganado lanar durante los malos tiempos del invierno; su madera, dura y tenaz, es propia para radios de ruedas y varas de coches».

Inozentzio Munitak, Aramako erretore landarezaleak, apenas deus haundirik erasten duen. «Zuaitz au ezagutzen ez duan euskaldunik ez da. Asko zabaldua dago gure lurretan. Lur arro xamarrek edo errekon-do ingurukoak ondo artzen ditut. Nolanai ere, emengo lurrik geienetan ez dator gaizki. Beste zuaitzekin nastuta ere ondo... Bere zura gogorra ta iraunkorra, aroztegieta gurpil eta beste gauza askotarako pozik artzen dute... Baita ere ona da lubizi bildurra dagon tokian lurrari eusteko arkazlaren antzera; asko zabaltzen baititu zañak; ortatik lurrari eusteko oberik ez izatea».

Azkuek ere apenas aipatzen duen, baina, bistan da gure herri sineskeran eragin nabaria izan duela. Esate bateko, Lizarra ez omen da bedekatzan berez bedekatua delakotz. Lizar arbaztak erabili ohi dira oraindik leku askotan Donibane bezperan etxe atariak apaintzeko, hortatik behar bada, San Juan berde esatera. Martzelino Sorok dio Donostiko Konstituzio Plazan lizarra sartu goizean, eguardian bedekatu apezak, eta gabeen sutu egiten zela, 1886ean debekatu zuten arte.

Sakana aldean, ezkontideen etxe eta bide inguruak lizarrez apaintzen zireneko testigutzak jasoak ditu J. M. Satrustegik. Etxe berriari estalia emandakoa ere lizar adaska paratzen zen galdurrean, oraingo erramu orde. Etxeko atalburuan ere, egungo elorri orde lehen lizar adaskak paratzen ziren gurutzetan. Lurra bedekatzetan ere lizar adaskak sartzen ziren han hemen, eta borda inguruko muga sakratuak zaintzeko lizar landareak aldatu.

Politikan ere ezkontide berrien bideak eta euskaldunon etxe lur mugak bedekatzeko muskilberritu ote da Lizarra?

Ziria

• Motxorrosolo •

Oinez

EZER IKASTEKO PARADA IZAN OHI DUGU. EUSKALGINTZAREN inguruko eztabaidak atzerapenez iristen zaizkigu. Jarrera arduratsuak ez dira urri gurean. Alta, Nafarroa Oinez bi urtez jarraian hiriburuzagian antolatzearenak ez dio inolako mesederik egiten horren beharrezkoa den elkarlanari.

Petti



Kantaria

«Momentu txarrak dira abesti onak ateratzeko aproposenak»

PROMOZIO ORRIEK BERE DISkoa blues eta folkaren artean dagoela erran badute ere, Pettik ez du horren argi ikusten.

■ Nola definituko zenuke diskoa?

Disko gogorra da lehenbiziko aldian entzuteko, eta nahiko iluna. Blues eta folkaren artean dagoela erran dugu, baina ez dut uste blues eta folka denik. Horien eragina badago, baina ez da erabat horrela. Lehendik ere banituen kanten bilduma da. Banituen kanta gehiago, baina hauek atera nituen lehenik, eta, horregatik, landuagoak nituen. Eta bertzeak bertze baterako izanen ote diren ikusiko dugu.

■ Zeintzuk dira kantetan Pettik kanporatzen dituen haserreak?

Mila izaten ahal dira.

■ Zeri buruz hitz egiten duzu zure kantetan?

Depresio garaian egindako hitz pila dago diskoan, momentu txarretan burutik pasatzen zaizkizun hitzak. Momentu txarrak dira abesti onak ateratzeko momenturik aproposenak. Momentu onetako abestiek martxa handiagoa dute. Diruaren kontuaz hitz egiten dutenak ere badi-ra. Edo amodioaz. Eta bada kantari bati eginiko omenaldi bat ere. Baina hitzak normalak dira, jendeak normalean pentsatzen dituenak. Gauza da batzuk apuntatzen ditugula eta bertze batzuek ez. Edo nola ere, abesti zailak dira. Nire kanteak existentziari buruz hitz egiten dute, bizitzari buruz. Sentimenduz beteriko kanteak dira.

■ Petti bakarra da?

Beharbada musika mota ilun hori entzuteko ohitura ez dagoelako jarri didate adjektibo hori disko etxeokoei promozio orrian, baina bakarra naizela erratea soberan da. Hemendik bartz edo hamar urtera normalagoa izanen da nik egiten dudana musika mota.

■ Nolakoak dira zure kontzertuak?

Diferenteak dira guztiak. Nik inoiz ez dut egin bi kontzertu berdin, kanta berdinekin edo ordena berarekin. Kanta berria egiten badut, hurrengo kontzertuan jo egiten dut, eta zaharra kendu. Bertzetik, kontzertuak progresiboak izaten ohi dira. Lasai hasi eta bukaera kañeroagoa da. Denak dira jende gu-

tiko kontzertuak. Normalean, batez bertzekoa sei edo zazpi pertsona izaten da. Hasten denean hogeit bat egoten dira, baina bukatzerako sei edo zazpi gelditzen dira soilik. Tolosako azken kontzertuan, ni autoan eramaten nauena kenduz, lau pertsona zeuden. Baina jende anitz egotea ere ez zait gustatzen.

■ Eta holakoetan nola sentitzen da kantaria?

Beti erran dut hobe dela musika gustuko duten hiru pertsona jotzen ari zarela ohartu ez diren zortziehun baino. Ezin duzu jendea behartu. Nik egiten dudana musika gero eta jende gehiagok gustuko baldin badu, hobe, baina berdin dio ez

bazaio gustatzen. Beti nahiago duzu jende anitz egotea eta ez jende guti, baina ezin bada, ezin da, eta kito. Kontzertua hasten denean begiak ixten ditut, ez deskontzentratzeko, eta bukatu arte ez ditut berriz irekitzen. Hortaz, ez dakit jendeak zer dudanean ateratzen naiz.

■ Taberna ttikiak edo areto handiak?

Nahiago dut taberna ttikian jo. Holakoetan izan dira kontzertu gehienak. Bakarka ibiltzen naitenez edozein toki ttikitara sartzen ahal naiz. Areto handitan ez dut jo, Iruñeko Artaia eta Bilboko Kafe Antzokian izan ezik. Jendea ondoan izatea atsegin dut. Kafe antzokian, erraterako, ez zegoen inor nire ondoan. Gero eta leku ttikiagoa, jende gutiago eta niregandik hurbilago. Gainera, igual jende gutirentzako musika da nirea. Eta diskoa ere guti salduko da. Baina, beno, Gaztelupeko Hotsekoei ongi portatu dira, eta behintzat haiek jarri dutena berreskuratzeko saldu nahi dugu.

■ Zer-nolako musika egiten da Bera aldean?

Kañero-a eta esperimentala. Orain badira hiru talde: Borrokan, Gutariko Bat eta ZUP. Eta hirurek egiten dute musika kañero-a eta oso zaila entzuteko. Musika mota hori entzuteko ohitura ez dutenei ez zaie erraza egiten lehendabizikoz entzutean. Ez dakit zergatik, baina esperimentazio lekua da Bera. Beti erran dute arraroak garela beratarak, igual mendi tartean zulo batean bizi garela.

→ Asier Azpilikueta



• JOSU SANTESTEBAN

Petti ezizeneko beratarak Amets bat izenburuko diskoa atera berri du Gaztelupeko Hotsak disko etxearekin. Ahots sakoneko eta erantzun motzeko kantaria da Petti, eta bere kanteak sentimenduz beterik daudela dio.

s o s l a i a

Juan Luis Perez Mitxelena, Petti, Beran jaio zen, 1973ko urriaren 24an. Institutuan elektrizitatea ikasi eta Ibaringo supermerkatuan eta Berako pare bat tabernatan egin du lan. Orain lanaldi erdiko lan baten bila dabil, kantatzen segitzeko.

Hamabortz urtekin hasi zen gitarra jotzen, Noise Hole punk-rock taldean. Gero, zazpi edo zortzi urteren buruan, ZUP taldean hasi zen jotzen eta kantatzen. ZUPekin zela, erabaki zuen etxean idatzitako hitzei musika jartzea eta bakarrik jotzen hastea. Gitarra klasikoa eta elektrikoa jotzen du. Ahal duelarik, zortzi ordu entseगतzen da egunero.

Pettik mota askotako musikatik edan du. "Garai txarretan, musika lasaia entzutea gustatzen zait", azaldu du: "Tom Waits edo Nick Cave, musika iluna batez ere. Garai hobeak badut, denetarik entzuten dut, mexikar bat edo Napalm Death". Euskal Herrian Anari da gehien hurbiltzen zaion kantaria, eta Xabier Montoya, Morau, Joxi Ubeda, Mikel Laboa eta Ruper Ordorikaren eragina jaso duela onartu du.

Amets bat diskoa lagun batek erosi zuen ekipo batean grabatu zuen Pettik, Beran. Grabaturikoa Gaztelupeko Hotsekoei eman, eta haiek diskoa ateratzeko baietza eman zioten. Pettik zorte handia izan zuela uste du, ametsa disko bilakatzea ez omen baita erraza. Diskoaren mila kopia jarri dituzte salgai, eta dagoeneko erdiak saldu dituzte.



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Kartzela zaharra

Euskaldunok, beste hainbat akatsen artean, jakinduria gutxiko gizabanakoak izan omen gara, sabela bete bai baina burua deus gutxi. Dena den, gure historia-ri, hurbil zein aspaldikoari, errepa- ratuz gero kartzelen inguruko kon- tuetan aditu handiak garela ukazina da. Mendeetan zehar kar- tzela izan da euskal erresistentziak akabatze mota eta kolore guztietako agintariekin erabili duten irtenbide antzua, eta ondorioz, hura izan da kultur sorlekua eta, batez ere, saminlekua.

«Espetxe politikaren» gaia pil-pile- an dagoen honetan Iruñeko kartzel- an emakumeentzako gunea zabaldu berri dute. Oker irakurri ez badut, dagoeneko egon behar lukete hemen lehenengo presoek... baita hauen zaindarien ere. Bederatzi emakume izango dira egoitza berriak hartuko dituen lehendabizikoak, eta hauen- tzako hamabi kartzelero egongo dira, batez besteko nahiko polita osatuz.

Emakume presoak Iruñera ekar- tzearenak (hau ere keinu bat ote?) ez du batere zerikusirik presoak herri- ratzeko eskaerarekin. 300 preso- entzako espetxe berria egiteko nahia egundoko berria izango bailitzan sal- du digute politikari eta haien bozgo- railuek, lehengo egunean emakume- en modulu berria «erosotasunez» josirik, hotel baten moduan, aurkez- tu ziguten berberak. Kartzela berri eta handiago bat eraikitzea ezin dai- teke inolaz ere albiste ona izan, pre- soek preso segitzen duten bitartean.

Kartzela berria izango dugula jaki- tea ez da batere lasaigarria; alderan- tziz, gure mandatariak dagoeneko etorkizuneko zigorrak ari direla pla- nifikatzen hotzikara sortarazten du. Horren beharrezkoa ikusten badute kartzela eta zigor-sistemaren bizi- raupena ziurtatzea, zergatik ez dute, txaletekin egiten duten moduan, partzela bana erosten?

OKONTZERTUAK

- **Aizoaia:** Los Rossis taldea Artsaia aretoan ariko da gaur 23:00etan. Sarrera doakoa da.
- **Atarrabia:** Gaur Color Humano eta Marea taldeek kontzertua emanen dute gau erditik aurrera herriko plazan.
- **Bera:** Bihar 22:30etan kultur etxean, Mikel Laboa eta Pettiren kantaldia izanen da.
- **Tutera:** Numidia taldeak Noma- das diskoa aurkeztuko du bihar, larunbata, Gaztanbide antzokian 22:30etan.
- **Otsagi:** Benito Lertxundik kon- tsertua emanen du bihar herriko frontoian 22:30etan.
- **Lizarra:** Bihar, 23:00etan, Gaz- tetxean Malarians eta ES 3 taldeen kontzertua izanen da.
- **Iruñea:** Astelehenean Etxaba- koizko bestak direla eta Etsaiak eta El Trono de Judas taldeen kontzertua izanen da 23:00etan jailetako karpan. Sarrera doakoa da.

HITZALDIK

- **Itzaltzu:** Jolasen altxorra izene- ko hitzaldia eta diapositiba emanaldia izanen da gaur 21:00etan Anduña Ibaia elkarteak.
- **Iruñea:** Asteazkenean, Andres Iñigo euskaltzaina Zaldiko Maldiko elkarteak ariko da 20:00etan Euskaltzaindiaren eginkizunei eta aurrera begi- rako urratsei buruz.

ANTZERKIA

- **Zizur Nagusia:** Gaur, ostiralare- kin, Kultur Etxean Yllana tal- deak 666 ikuskizuna eskaini- ko du 22:00etatik aurrera.
- **Iruñea:** «Emakume protagonis- tak» zikloaren barnean, bihar eta etzi, Aristofanesen *La asamblea de mujeres* antzez- lana taularatuko dute Gaia- rre antzokian. John Stras- bergek zuzentzen du eta

Esperanza Roy da protagonis- ta.

IKASTAROAK

- **Iruñea:** Udalaren euskarazko X. Sormen Tallerrak urriaren 18an hasiko eta Aste Santua- rekin bukatuko dira. Ikasta-

roak: argazkigintza, pintura, tapizgintza, zeramika, an- tzerki teknikak, txalaparta, kantua, euskal dantzak, dantza latinoak, dantzaren historia, irratia, animazio eta multimedia, internet, yoga, sukaldaritza eta jantzigintza. Izena urriaren 15a baino

lehen eman behar da Gazte- riaren Etxean.

ERAKUSKETAK

- **Tafalla:** Euskara eta kultura Nafarroan erakusketa ikus daiteke bihar arte Garces de los Fayos kultur etxean.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



Erguete, pelengrin, que o paxaro da morte está enriba de ti.
"Como en Irlanda, érguete e anda."

Aik gora, erromes, hire gainean baituk herioaren hegaztina.
"Irlandan bezala, haik etahabil".